



# Pobrezia Energetikoa.

## Lehen diagnosis

### Goierriin



# HELBURUA

**“Pobrezia energetikoaren lehen  
diagnosi bat burutzea Goierrin”**



**Pobrezia energetikoa udalen  
2022ko agendan sartzea**

# PROZESUA

- **Elkarrizketak**
- **Eragileentzako galdetegia**
- **Herritarrentzako galdetegia**
- **Proposamenak**

# ERAGILEEN ELKARRIZKETAK: EMAITZAK

<p><b>Udal txikiek aurrekontu zailtasunak</b> dituzte, ez zaie Jaurlaritzak GLL-tarako destinatzen dituzten laguntzekin iristen eta Udal aurrekontuko % deigarri bat eramaten dute.</p>	<p><b>Alokairuan</b> dauden etxeei buruzko aipamen asko dago. <b>Etxebizitzaren prezio altuak, efizientzia energetiko baxukoak.</b> Horrek faktura ordaintzeko kantitatea asko igo dezake.</p>	<p><b>Herritarren ehuneko txiki bat</b> bakarrik joaten da <b>Udaleko Gizarte Zerbitzuetara</b>, eta haietako batzuk GKEetara bideratzen dira. <b>Beste ehuneko handi batek ez du laguntzarik jasotzen</b>, batez ere estigma arrazoiengatik edo prozesu burokratikoaren zailtasunengatik.</p>
<p><b>Udalek</b> ematen duten <b>zerbitzuen hartzaileen profila</b> eta <b>Gobernuz kanpoko Erakundearen hartzaileen profilen artean ezberdintasun nagusi bat ematen da.</b> Paperak, errolda, alokairu kontratua eta energia fakturak bere izenean dutenak eta ez dutenak.</p>	<p>Laguntzak jasotzen dituztenen artean <b>oso ohikoa</b> da energiaren <b>faktura ez ulertzea.</b></p>	<p><b>Bonu Soziala tramitatzen laguntzen dute</b> ahal duten neurrian, <b>baina denbora eta jakintza falta medio</b>, udaletatik ematen den laguntza oso mugatua da.</p>

# ERAGILEEN GALDETEGIA: EMAITZAK

**Goierri Udaletako Gizarte Zerbitzuko** laguntzak artatzen duten familia kopurua 442 da. Horietako **338 bizikidetzak unitateek jasotzen dute Energiaren kontsumorako diru laguntza GLL bidez**. Gizarte laguntzak artatzen dituzten familia guztietatik %76,47-k Energia Kontsumorako diru laguntza eskatzen dute. Horietako

GLL-a artatzen duten **213 bizikidetzak unitateek Bonu Soziala tramitatu dutela erregistratuta dago** eta horietako 187 bizikidetzak unitateek Udaletxearen laguntzarekin egin dute tramitazioa. Ordizia eta Lazkaoko Udaletxeak GLL ko laguntzak jasotzeko Bonu Soziala eskaera tramitatzea eskatzen dute. 901 familiak jaso dute guztira Bonu Soziala Goierri. (kommodo plataforma 2021-ean jasota)

**Gurutze Gorriko Pobrezia Energetikorako laguntzei dagokionez**, familiako edo bizikidetzak unitateko 250,00 EUR jaso dezakete. Gurutze Gorriak **46 bizikidetzak unitateen** Energia (ura, gasa, argia) gastuen ordainketa kudeatu du Eusko Jaurlaritzaren Pobrezia Energetiko programaren bidez.

**Caritasek 2019an 860 familia artatu zituen eta 2020an 1107 familia**. Horietako 99% atzeritarrak dira, egoera irregularrean daudenak, errolda edo alokairu edo kontratu edo faktura elektrikoa titularrak ez direnak. **Caritasen kasuan energia kontsumoa ordaintzeko** linea berezirik ez dago. Baina oinarrizko beharrak lehenesten dituzte: etxebizitza, elikadura eta energia barne. 2020 urtean energia laguntzak: 3.528,80 EUR-koak izan ziren eta eta 2021ean urtean 2.077 EUR-koak.

# HERRITARREN GALDETEGIA: EMAITZAK

## PROFIL NAGUSIA:

Guztira: 184 pertsonak hartu dute parte.

- Adina → 30-50 urte (% 57)
- Ikasketak → Unibertsitatea (% 55)
- Diru sarrerak → 25.000 € baino gehiago (% 85)
- Jatorria → Goierri (% 80)
- Generoa → Emakumeak (% 60)

## ONDORIO NAGUSIAK:

- Urteko **energia gastua**, batez beste → **1.012 €**
- Nolabaiteko **pobrezia energetikoa** (pertzepzioa) → **% 15** (eta % 19-k ez daki)
- **% 24-aren etxeko tenperatura neguan** → **18 °C baino gutxiago**
- % 6-ari ez dio kezkarik eragiten energia gastuak
- **% 42-ari kezka handia** sortzen dio

**Prozesua, egoeraren erakusgarri → pobrezia energetikoa gehien sufritzen dutenengana iristeko zailtasunak**

# PROPOSAMENAK:

- 1) Udaletako Gizarte Teknikariei eta elkarteei formakuntza
- 2) Herritarrentzako tailerrak energiaren erabileraren eta kontsumoaren inguruan
- 3) Gaiaren inguruko lanketa herri eta eskualde mailan
- 4) Etxebizitzen birgaitzeak sustatzea
- 5) Komunitate energetikoak sustatzea
- 6) Energia bulegoa eratzea
- 7) Gizarte Kontseilua sendotzea

# PROPOSAMENAK:

## 1) Udaletako Gizarte Teknikariei eta elkarteei formakuntza

Pobrezia energetikoari aurre egiteko Udalen gaitasuna hobetzen lagundu gorago baliabide ezberdinak modu optimoan erabilita (fakturen optimizazioa, bonu soziala, kontsumoa murrizteko moduak, energiarekin lotutako diru-laguntzak...) laguntza integralagoa eman daiteke, eta horrela onuradunek laguntza ekonomiko txikiagoak behar izatea lortu.



# PROPOSAMENAK:

## 2) Herritarrentzako tailerrak energiaren erabileraren eta kontsumoaren inguruan:

Herritarrak ahalduntzen lagundu dezaketen gai batzuk:

- Energia faktura (argindarra nahiz gasa)
- Kontsumo eta efizientzia energetikoa
- Birgaitze energetikoak
- Autokontsumoa

# PROPOSAMENAK:

## 3) Gaiaren inguruko Sozialisazioa herri eta eskualde mailan:

- Kontzientziazio kanpainak
- Gaiaren inguruko lanketa komunikabideetan
- Hitzaldiak edota jardunaldiak
- Gaiaren inguruko lanketa hezkuntzan

# PROPOSAMENAK:

## 4) Etxebizitzen birgaitzeak sustatzea:

Pobrezia energetikoan dauden etxebizitza ugari auzo edota eraikin berberean daude (adibidez, egoera txarrean dagoen eraikin bateko bizilagun denek GLL jasotzea), eta horrek birgaitzeen bidez pobrezia energetikoa modu eraginkorrean murriztea eragin dezake.

# PROPOSAMENAK:

## 5) Komunitate energetikoak sustatzea:

Komunitate energetikoek, herritarren parte hartzea sustatzeaz gain, energiaren **eskuragarritasuna** hobetzen dute hainbat modutara, energia herritarrengana gerturatzen eta hainbat gai landu ditzakete haien jarduera modura (formakuntza, birgaitzeak...), eta hori Udalaren ekintzen osagarri izan daiteke pobrezia energetikoari aurre egiteko.

- Taldean eta kolektiboki ahalduntzea eta motibatzea errazagoa da
- Laguntza ekonomiko edo teknikoa bakarrik ez, laguntza soziala ere eman dezakete
- Arazoa norberarena izatetik denona izatera igarotzen da (erantzukizun eta konponbide kolektiboa)

# PROPOSAMENAK:

## 6) Energia bulegoa eratzea:

Herritar eta nahiz udaletako langile batzuei erreferentziazko leku bat falta zaie energiarekin lotutako gaien inguruko zalantzak argitzeko edota laguntza eskatzeko (efizientzia, faktura, bonu soziala...).

Udalak izan daitezke zerbitzu hori eskaintzeko egokienak, beste udalekin edo eskualdeko administrazioarekin elkarlanean edo modu mankomunatuan.

**Goiekin aldetik: Oarsoaldean jarraitu duten eredia aztertu nahi da, Goierrin ere udalei antzerako ekimen bat proposatzeko asmoz.**

### Norentzat?

- Herritarrentzat (harrera eta laguntza)
- Udal langilentzat (aholkularitza eta laguntza)

### Zertarako?

- Gaiaren inguruko lanketan sakontzeko (dinamizazioa eta koordinazioa)
- Beste gaiak ere lantzeko (transbertsalitatea): etxebizitza, birgaitzeak, berriztagarriak, kontsumoa...
- Pobrezia energetikoari aurre eginda, beste arazoei ere aurre egiten zaie (ingurumena, etxebizitza, ekonomia...)

# PROPOSAMENAK:

## 7) Gizarte Kontseilua sendotzea:

Udalen eta gizarte zerbitzuetako arloen arteko koordinazio hori oso garrantzitsutzat ikusten da.

Honako gaien inguruan lagun dezake, adibidez:

- Birgaitzeetarako laguntzak
- Herriko etxebizitzaren egoera, eta horren lotura pobrezia energetikoarekin
- Udal zergak eta haien bidez zaurgarriei laguntzeko aukerak: Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergak (hirigintza) edota zaborren zergak (ingurumena).